

SANTA AGEDA

1. Zorion, etxe hontako denoi!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina ezta ez sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.
2. Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.



OLES, OLES (Musua disko-liburua)

Oles, oles lurra esna zaitez! Oles, oles lurra esna zaitez!! (bis)
Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak kantuan hasi dira birigarroak eta zozoak. (bis)
Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak dantzari hasi dira azeriak eta otsoak. (bis)
Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak berriro entzun dezan taupadaka mundu osoak. (bis)

